

AROTZERIA ETA ALTZARIGINTZA AUKERA: NEURRIKO AROTZERIA



ONARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO MUDAL INSTITUTUA DURANGO

Formakuntza- plana:

Hauek dira heziketa-ziklo honetako moduluak:

1. Kurtsoa:

- Zientzia aplikatuak I. (165 o.)
- Komunikazioa eta gizartea I. (165 o.)
- Tutoretza eta orientabidea I. (33 o.)
- Zuraren eta deribatuen mekanizazioaren oinarriko eragiketak. (231 o.)
- Zuraren oinarriko akaberak. (132 o.)
- Ehungintzako materiala eta produktuak. (66 o.)
- Altzariak tapizatzea. (132 o.)
- Bezeroen arreta. (66 o.)

2. kurtsoa:

- Zientzia aplikatuak II. (144 o.)
- Komunikazioa eta gizartea II. (168 o.)
- Altzariak eta arotzeriako elementuak instalatzea. (120 o.)
- Laneko prestakuntza eta orientabidea. (53 o.)
- Lantokiko prestakuntza. (260 o.)
- Tutoretza eta orientabidea II. (25 o.)

Ikastetxe honetan emandako aukera: Neurrirako Zurgintza

- Altzarien muntaketa. (240 o.)

Zurgintza Industrial aukera:

- Prozesuen interpretazio grafikoa eta analisia. (96 o.)
- Egurra lantzeko makina eta ekipamendu industrialak.

Zer ikasiko dut?

- Arotzeriako eta altzarigintzako elementuak fabrikatzeko eta instalatzeko materialak eta produktuak aukeratu eta pilatu.
- Zura, oihala eta deribatuak trazatzeko, ebakitzeko eta mekanizatzeko eragiketak egin.
- Zura, oihala eta deribatuetan loturak egin.
- Akabera- eta tapizatze-eragiketak eskuz eta makinaz egiten.
- Altzariak -altzari modurrak eta tapizatuak barne- erreminta eramangarri bidez muntatzen eta doitzen.
- Arotzeriako eta altzarigintzako elementuak garraiatzen, desmuntatzen eta, muntatzen.
- Parketa, tronadura edo frisoak instalatzeko oinarriko eragiketak.

Ikasketak amaitzean, zer egin dezaket?

Honako lanbide hauetako bat izan dezakezu:

- Ebanisteriako produktuak, oro har, muntatzea.
- Zurezko altzarien edo antzekoen muntatzailea.
- Zurezko produktuen muntatzailea, ebanisteria izan ezik.
- Zurezko ontzien eta enbalajeen -eta antzekoen- muntatzailea.
- Zurezko altzarien akabera-emailea.
- Parketaren leuntzaile bernizatzailea.
- Zurezko artisautzako bernizatzaile lakatzailea.
- Zurezko altzarigintzako bernizatzaile lakatzailea.
- Altzarien akabera-treneko langilea.
- Eskuzko enbalatzailea/paketatzailea/etiketatzailea.
- Zuraren eta kortxoaren industriako peoia.
- Altzari-tapizatzailea.

Honako ikasketa hauekin jarrai dezakezu:

- Erdi-mailako beste edozein ziklotan sarbide zuzena. Titulu honek lehentasuna izango du familia bereko ziklotan.
- Batxilergoa, DBHko Titulua lortuko duzulako.